

Leioa, 2025eko urriaren 26a

Zuzendari agurgarria:

Atsegina zait informatzea 2025/2026 Ikasturte Akademiko honetan, beste urte batzuetan bezala, Olinpiada Zientifikoetako fase autonomikoak egingo direla Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

Dakizunez, ekintza hauek Biologian, Fisikan, Geologian, Matematikan edota Kimikan interesa duten eta horiek ikasten gozaten duten bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude. Dagokion fase autonomikoetan, bigarren Batxilergoan Euskal Autonomia Erkidegoan 2025/2026 Ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek har dezakete parte eta **Geologiaren eta Matematikaren kasuan ere 4. DBHko eta 1. Batxillerreko ikasleek har dezakete parte.**

Ondoren, zenbait Olinpiaden datak zehazten dizkizut:

Olinpiada	Izen-emate- data	Proba teorikoa Data	Proba praktikoa Data	Lekua
Biologia	2025/11/10 - 2026/01/16	2026/01/23	Ez dago	ZTFn, Gipuzkoako Kimika Fakultatean eta arabako Farmazia Fakultatean
Fisika	2025/10/15- 2026/01/15	2026/01/16	2026/02/20. ZTF (Leioa)	ZTFn Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola Farmazia Fakultatea
Geologia	2025/11/10 - 2026/02/11	2026/02/13	2026/02/13	ZTF-FCT
Matematikak	2026/01/15	2026/01/16		ZTF-FCT
Kimika	2025/03/01	2025/03/06	2025/03/06	ZTFn eta Gipuzkoako Kimika Fakultatean

Biologiako, Fisikako, Geologiako, Matematiketako eta Kimikako Olinpiadetako diptikoak eta informazio guztia gure web orrian aurki dezakezue hurrengo estekan:
<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/estudiantes-bachillerato>

Ondo dakizunez, ikasleen parte hartzea Olinpiadetan beren jakituria probatzeko aukera ezin hobea ematen die, baita unibertsitatearekin eta beste ikasle batzuekin lehen kontaktua izateko. Bestalde, fase autonomikoa gainditzeak eta fase nazionalen eta internazionalen parte hartzeko aukera izateak, bere kasuan, esperientzia paregabea suposa lezake beren bizitzan. Horregatik guztiagatik parte hartzera animatzen ditut, eta aldi berean, nire agurrik beroena bidaltzen diet.

Fernando Plazaola
Dekanoa, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea



Dekanotza

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA
BIZKAIKAO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Apartado 644
48080 Bilbao-Bizkaia
T: 94 601 26 65
F: 94 601 27 40